ek!
eta kitto!
euskara elkartea
2025eko urriak 24 · 1371 zenbakia

PANTAILAZ GAINDIKO BIZITZAREN ALDE

JMR
jmr.eus
943 57 41 03
jmr_eraikunzak
ERAIKUNTZA LANAK

Neinor HOMES
ARRATE HOMES
Eibarko zure etxebizitza berriak
SARIA DU!
Orain bakarrik, Arrate Homes-en zure etxebizitza berria eskuratuz gero,
3.000€-ko
El Corte Inglés-eko opari-txartela emango dizugu
Obra berriko etxebizitzak:
Gimnasioa · Gourmet areloa · Garajea · Trastelekua
900 11 00 22 • neinorhomes.com

errigora
errigora.eus
Ezinbestekoak
euskararentzat Agerrean
agerraldia
euskara plazara
aek
IKASTOLAK
Sortzen
urriak 23 - azaroak 13
Eskatu Nafarroa erdi eta hegoaldeko produktuz beteriko saskiak
eta eman balioaren %25 zonaldeko euskalgintzari

Jarraitu gaitzazu!

Jokin Azpiazu Carballo soziologoak 'Maskulinitateak eta feminismoa' liburuaren bigarren edizioa aurkeztu zuen joan den eguenean, urriak 16, Andretxean. Liburuaren inguruan berba egiteaz gain, bertan lantzen diren gaiei buruz hausnartzeko aukera izan zuten bertaratu zirenek. Bideo hau eta beste asko ...eta kitto!-ren YouTubeko kanalean ikus daitezke.

BIDEOAK YouTuben ikusgai

Jarraitu aktualitatea gure webgunean eta sare sozialetan

www.etakitto.eus

...eta kitto!
euskara elkartea

ARGITARATZAILEA
...eta kitto! Euskara Elkartea
HELBIDEA
Urkizu, 11 · 20600 Eibar
TELEFONOAK
943 20 67 76 / 943 20 09 18
ASTEKARIAREN E-MAILAK
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus
aldizkaria@etakitto.eus
ELKARTEAREN E-MAILAK
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus
ERREDAKZIO-KONTSEILUA
Ana Aizpurua, Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander Fernandez, Silbia Hernandez, Irune Jaio eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA
Marisol Uriarte
KOORDINATZAILEA
Ana Aizpurua
ERREDAKZIO-BURUA
Silbia Hernandez
DISEINUA
Irune Jaio
MAKETAZIOA
...eta kitto! astekaria
HIZKUNTZA ARDURA
Maider Aranberri
PUBLIZITATEA
Ander Fernandez
TELEFONOA
943 20 67 76

AZALA
Irune Jaio
BANAKETA-ARDURA
Idoia Labado
TIRADA
7.800 ale
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A
...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lagundutako aldizkaria

EIBAR Udala | Ayuntamiento

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak

Topinburu ez da soilik tontor bat

Topinburu mendia ez da tontor bat mapan soilik. Isiltasunaren eta haizearen arteko elkarrizketa da, gure herriaren arnasa, gure memoria kolektiboaren zutabea. Bere 596 metroko altueratik, ez du agintzen — zaintzen du. Ez du oihukatzen — xuxurlatzen du. Eta xuxurla horretan, gure historia, gure nortasuna eta gure etorkizuna daude idatzita.

Gaur, mehatxu baten aurrean gaude: makroeoliko zentralek 200 metrotako haize-errotak jarri nahi dituzte bertan. Haize-errotak instalatzeko beharrezkoak diren lanek (bide berriak, plataforma zabalak, zimentazioak) bere paisaia, bere bizitza eta bere isiltasuna estaltzeko arriskua dakarte. Zementua, zarata eta zentralizazioa ez dira garapena, baldin eta bizitza estaltzen badute. Ze herentzia utzi nahi diegu gure ondorengoei? Ez dezagun mendi bizia dorre metaliko bihurtu saguzarrak, baso-loreak, eta lurpeko bizitza eta iturriak zementuaren azpian itota. Ez gaude energia berriztagarrien aurka. Baina ez dezagun berriztagarria nahastu bidezkoarekin. Energia garbiaren izenean, zentral eoliko erraldoiak ez dira komunitatearen mesedetan eraikitzen, baizik eta merkatuaren logikan. Energia, gure lurraldean sortua, urruneko sareetara bideratzen da, eta irabaziak ez dira gure herrietan geratzen. Mendia desjabetzen da, eta komunitatea isilarazten. Zer gertatuko da haize-erroten bizi-iraupena amaitzean mole erraldoi hauekin? Nola bueltatu bizitza suntsitu den Naturari? Ez da garapena, suntsipena bada. Ez da energia jasangarria Natura galtzen bada. Ez dezagun etorkizuna eraiki iraganaren hondamendian. Gorde dezagun mendiaren arnasa, haizea libre, eta lurra bizirik.

Mireia Agirrebeña

Hortik esanak

Jose Carlos Ruiz idazlea, `Filosofía ante el desánimo´ bere liburuan, ergel hipermodernoaz mintzatzen da. Gaurko ergelarentzat dena izan daiteke konspirazioa edota manipulazioa baldin eta bere konbentzimendua zalantzan jartzen bada. Gaurko munduaren erosotasunak eratutako pertsona da, eta teknologiari esker bere errealitatea aldatu du. Ez du analisirako tarterik, berak bere pentsamendua indartu behar du eta publiko egin, inolako lotsarik gabe. Ergel ona denez ez dio besteari entzungo, erabat egozentrikoa baita, horrexegatik gaitasun gutxi duten pertsonek gai espezializatuei buruzko iritzia eman ohi dute, ideiarik ez duten arren. Espezialistek berek baino gehiago dakitela uste dute.

Juanma Madariaga, idazlea

Lanaldia hasteko ordua egokitzea arazo bat da, egunsentia aldatu egiten baita urtean zehar negutik udara bitartean. Hiru orduko aldaketa dago. Gainera, pertsona guztiak ez dira ordu berean sartzen lanera. Beraz, goizeko seietan sartzen den pertsona batek ez du goizeko hamarretan sartzen diren pertsonen desio edo lehentasun bera ordu-aldaketaren arazoaren aurrean. Ondorioz, ordu-aldaketa konpromiso moduko bat da; izan ere, jende askori gustatzen ez zaion arren, motelgailu sozial baten moduan funtzionatzen du, oreka moduko baten moduan. Jakina, urtean aldaketa bat edo bi egiteko konpromisoaren prezioa nahaste bat da, inkordio bat, zerbait gogaikarria, baina pertsona gehienoi laguntzen digu bizitzen lanaldia neguko muturreko urtarora eta udako muturreko urtarora egokituta.

Martín Olalla, fisikaria

ORDU ALDAKETA

Asteburuko zapatutik domekarako (urriak 26) goizaldeko 03:00ak heltzean, erloju guztiak ordubete atzeratu egin beharko ditugu, 02:00etara.
Beraz, ofizialki ordubete gehiago izango du asteburuko domekak. Neguko ordutegiak martxoaren 29ra arte iraungo du, udakoa berriro indarrean jarri arte.

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PIRATZAILE ➜ Jolasetan eta kiroletan arauak betearazten dituena, epailea referea. Gaztelerazko árbitro'. "Piratzailliak gure alde erabagi eban".
PIRAU ➜ Jolasetan eta jokoetan epaile lana egin. "Ez eban ondo pirau ha tantua, piratzaillia ez zalako zuzena".

TUTULUMENDI

Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 24
EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)

ZAPATUA 25
EGUNEZ | **Lekunberri** (Isasi, 31)

DOMEKA 26
EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)

ASTELEHENA 27
EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)

MARTITZENA 28
EGUNEZ | Zulueta (San Agustin, 5)

EGUAZTENA 29
EGUNEZ | **Mendinueta** (Urkizu, 6)

EGUENA 30
EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

BARIXAKUA 31
EGUNEZ | Zulueta (San Agustin, 5)

GAUEZ BETI, 2025ean,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Juan Vicente Pozuelo Callejo.** 85 urte. 2025-X-15.
- **Mariluz Gisasola Barrenetxea.** 85 urte. 2025-X-15.
- **Mari Merche Zuluaga Arakistain.** 93 urte. 2025-X-17.
- **Celia Berasaluze Ibarzabal.** 81 urte. 2025-X-17.
- **Denis Lluch Fernandez.** 92 urte. 2025-X-20.
- **Mª Luz Suinaga Arizaga.** 93 urte. 2025-X-21.

Hasi dira klaseak Esperientzia Eskolako 21. promozioko ikasle berrientzat ere

S.H. Portaleko areto nagusiak hartu zuen barixakuan Ikasten elkartearen 2025/26 ikasturtearen hasiera ekitaldia. Bertan, Debabarreneko Esperientzia Eskolako 21. promozioko ikasleei ongietorria egin zieten. Aurten, 16 emakumek eta hiru gizonek eman dute izena, eta gehienak (14) Eibarkoak dira (Elgoibarko eta Ermuko bina lagun eta Mallabiko bat daude taldean). Ekitaldia palestinar herriari babesa emanez hasi zuten, eta ondoren Quico Puges Eibarren bizi den txelo-jole kataluniarrak girotu zuen saioa.

Udal Artxiboak Gernika Batailoiko kideen izenak argitaratu ditu

S.H. Eibarko Udal Artxiboan daude gordeta Gernika Batailoiko teniente izan zen Andres Prieto Aranaren artxiboak, eta azaldu dutenez, "dokumentazio askoren artean, fitxategi bat dago, geroago Gernikako Batailoia osatuko zuten Euskal Brigadako kideen izenekin". 80 urte pasatu dira Pointe de Graveko (Frantzia) gudua gertatu zela: "Bataila hartan, Gernika Batailoiak alemaniarrek hartutako gune bat askatzeko egin zuen borroka, eta bost kide galdu zituen".

1975. urtean jaiotekoek ondo baino hobeto ospatu dute mende erdia betetzea

S.H. Zapatuan ospatu zuten euren jaia aurten 50 urte bete edo beteko dituzten eibartarrek eta, eguraldia lagun, primeran pasatu zuten eguna (eta batzuek gaua ere!). Eibarren 632 haur jaio ziren 1975ean, eta horietatik ia 180 elkartu zituen kinto-jaiak (Argazkia: Mikel Askasibar).

Azaroaren 7tik aurrera dastatu ahal izango dira Tripontziak menuak Debabarrenean

SILBIA HERNANDEZ

Azaroaren 7tik 30era ospatuko da Tripontziak ekimen gastronomikoa Debabarrenean, Debegesa Garapen Agentziak eta Debabarreneko Klub Gastronomikoak antolatuta. Hamabigarren edizio honetan, Eibarko Baratze Taberna, Elgoibarko Belaustegi, Mallabiko Trabakua Behekoa, Mutrikuko Pikua eta Debako Hiru Bistro, Urgain eta Itsaslabarrak jatetxeek hartuko dute parte, eta sasoiko eta tokiko produktuetan oinarritutako platerak eskainiko dituzte, jatetxe bakoitzak bereak. Menuak, 38 eurokoak dira eta barne hartzen ditu aperitibo bat, sarrera, bi plater nagusi (haragia eta arraina) eta Mendaroko txokolatearekin egindako postrea. Ogia, kafea eta ardoa ere menuan sartzen dira, eta jatetxe guztiek ardo berdina eskainiko dute menurekin: Familia Valdelana upeltegiko ardo zuria eta ardo beltza. Menu guztiak debabarrenaturismo.com webgunean kontsultatu daitezke. Azpimarratu dutenez, Tripontziak menua jateko, ezinbesteko baldintza da aurretik erreserba egitea.

Aurten ere zozketa egingo da menua jaten dutenen artean: jatetxeetan eskuragarri egongo diren kupoiak edota QRa bete behar dira eta, amaieran, parte-hartzaile guztien artetik bi irabazle aterako dira, eta bertako produktuekin osatutako otar bana jasoko dute.

Haurreskoletako plazen eskaera ezagutzeko inkesta abiatu du Udalak

S.H. Eibarko Udalak inkesta bat abiarazi du herriko haurreskola publikoetan dauden plazen egungo eta etorkizuneko eskaera ezagutzeko. Udalak inkesta egiteko konpromisoa hartu zuen ikasturte honetarako plaza barik geratu diren gurasoekin egindako bileran. Inkesta online bete daiteke, eta azaroaren 23ra arte egongo da galdetegiari erantzuteko aukera www.eibar.eus webgunean, *Formularioak* azpiatalean. Ekimen horrekin gurasoen premiak zuzenean jaso nahi dituztela adierazi dute, horrela "lehen haurtzaroari zuzendutako udal baliabideen planifikazioa hobeto egiteko". Udalak jakinarazi duenez, bildutako datuak Alkatetzak aztertuko ditu, eta haurreskolen arloan etorkizunean bultzatu beharreko neurriak eta ekintzak planifikatzeko oinarri gisa erabiliko dira.

Eibarko artistak Galizian egon dira

S.H. Eibarko Artisten Elkartekoek eta haien lagunek asteburu-pasa ederra egin dute Galizian, Ribeira Sacran. Argazkian ondo ikusten denez, primeran ibili dira gora eta behera, herri ezberdinetako ondare artistikoa bertatik bertara ikusten. Tarteka euripean ibiltzea tokatu zaien arren, pozarren itzuli dira etxera.

Pagatxa elkarteko emakumeak zoragarri ibili ziren Tolosara egindako txangoan

S.H. Pagatxa emakume elkartekoak Tolosan egon dira. Aurreko asteko eguenean izan zen txangoa, eta alde zaharrean bisita gidatua egiten hasi zuten eguna. Ondoren, frontoian bazkari "bikaina" egin eta gero, TOPIC Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentrora joan ziren. Pozarren ibili zirela esan digute handik bueltan.

Azaroaren 2an egingo da gerra-frontea ezagutzeko hurrengo bisita gidatua

S.H. Gerra Zibileko gerra-frontearen ibilbide historikoa ezagutu nahi dutenentzat doako bisita gidatua antolatu dute azaroaren 2rako (domeka). Aurretik egin diren bisitetan bezala, mendi ibilbidea izango da. Bisitak hiru bat orduko iraupena izango du eta 11:00etan hasiko da, Arrateko Gerra Zibileko Interpretazio Zentroan. Egun horretan, Gerra Zibileko Interpretazio Zentroa 10:00etatik 11:00etara egongo da zabalik. Azaroko bisita gazteleraz izango da eta izen-ematea bihar (eguaztena, urriak 22) hasi eta urriaren 29an amaituko da. Bisita egiteko interesa duenak Udalaren webgunean eskuragarri egongo den formularioa bete beharko du.

Hasiberrientzat 'Nordic Walking' ikastaroa Ipuruan

S.H. "Nordic Walking" hastapen ikastaroa emango du Nuria Rodriguezek bihar (zapatua), Ipurua Merkatu Plazan, 09:30etik 11:30era (16 urtetik gorakoentzat). Klasea doan da, baina aurretik izena eman behar da (672275578 telefonoan edo nuriarodriguezibarra@gmail.com helbidera idatzita), gehienez 12 lagun onartuko dira eta.

Hemeretzi tabernatan jokatuko da 21. Pintxo Lehiaketa urriaren 29an eta 30ean

S.H. Arrate Kultur Elkarteak Eibar Merkataritza Gune Irekiaren, Eibarko Udalaren eta Eibarko ostalarien laguntzarekin antolatutako ekimenean hemeretzi parte-hartzaile egongo dira oraingo honetan, eta bakoitzak pintxo berezi bat sortu du, lehiaketara aurkezteko. Edizio honetako lehiakideak hauek dira: Amesti, Azkena, Baisi, Baratze Gourmet, Beleko, Bossa, Chic, Chido, Depor, Gure Leku, Kontent, Koskor, Kultu, Lusai, Topa-leku, Trinkete, Txoko, Tunelpe eta Bacoleku Ego-Gain. Lehiaketa martxan dagoen bi egunetan, pintxo hori tabernan eskaini beharko dute lehiakideek, bezeroek probatzeko aukera izan dezaten. Izan ere, epaimahai profesionalaren iritziaz gain, bezeroen botoak ere garrantzitsuak izango dira, publikoaren saria horien arabera erabakiko baita. Gainera, botoa ematen duten bezeroen artean zozketa egingo dute, eta irabazleak otar eder bat jasoko du.

La Pitiren erritmora eta koko-jantzita ospatuko da Arimen Gaua Topa-lekun

S.H. Arimen Gaua edo Gau Beltza ospatzeko jaia antolatu dute Topa-leku tabernakoek urriaren 31rako, 20:00etan hasita: La Piti hirukotearen runbaren erritmora ospatuko da jaia eta, gainera, tabernara mozorrotuta joatera animatu nahi dute jendea, "koko-jantzi originalena dutenentzat opariak egongo dira eta".

Luis Marcanoren marrazkian, Eibarko presoak Iruñeako kartzelako patioan.
EIBARKO UDAL ARTXIBOA.

UGT-ko buruetako bat izan zen Benigno, eta 1934ko urriko iraultzan ere hartu zuen parte. Partidu Sozialistan iraultza hura prestatzen aritu ziren. Pertsona ugari preso hartu zituzten. 1936ko otsailean epaiketa egin zieten. Kartzelako bizimodua. Eibarko herriak laguntasun handia eskaini zien presoei.

1934ko urriko iraultza: eibartar asko preso; epaiketak

Benigno Baskaran Guridi
(1908 – 1984)

Marcelino Baskaran sozialista eibartar ezagunaren semea. Umetan eta gaztaroan, irakurtzeko zaletasun handia. Baskarandarren etxean, "El Socialista" egunkaria irakurtzen zen egunero eta astero, "La lucha de clases". Politika liburuak ere sarri irakurtzen zituen Benignok. 13-14 urterekin Armeria Eskolara joan zen ikastera. Tornero, ajustadore lanetan aritu zen eta ondoren aitaren tailerrean hasi zen lanean. Eibarko eta inguruko politika giroa zuzen-zuzenean bizi izan zuen eta berarengan politikarako zaletasun hori ere laster suspertu zen.

Benigno Baskarani grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

[Urriaren 5eko insurrekzioan parte hartu zenuen.] Hillan bostekuan. [Bai, nola izan zen hori?] Oktubrian. Hori, Partido Sozialista barruan preparatzen egon giñan hori insurrekziñuori. [Asturiasko insurrekzioarekin bat eginda.] Asturiaskuakin batera; baterakua zan Asturiaskua ta Eibarkua ta Bilbokua ta... esan deigun, leku guztietakua. Guk Eibarren geure insurrekziñuori egin gendun ta preso mordo bat eruan giñuezen Pamplonako garzelara. [Eibartik zenbat preso?] Hirurehun bat egon giñan gehixen egon giñanian. Ta juzgau ginduezenian, juzgau ta gero libertad probisionalekin askok urten eben ta 36 geratu giñan. [Zenbat urtetarako kondena?] Neuk hogeta bostekua. [Hogeita bost urte. Hori 34an zen, ez?] Bai, ta febreruan, treinta y seisian, juiziua. Bai, bai! (...).

EGOIBARRA
EIBARKO KULTURA ONDAREA

Ahozko ondarea jasotzeko asmoz EIBARTARREN AHOTAN proiektua jarri zuen martxan Ego-Ibarra batzordeak 1999ko udan, Eibarko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren babesarekin. Proiektuaren helburua Eibarko eta inguruko herrietako nagusiekin hitz egin eta antzinako ipuin eta kontuak bideoz jasotzea da. Material horren zatirik handiena online kontsultatu daiteke **egoibarra.eus** webgunean (tartean 500 bideo-pasarte inguru). Bideo horietako batzuk aukeratu ditugu gure aldizkarirako atal berri hau sortzeko.

Testuak MAIDER ARANBERRI

Jai-giro paregabea eskaini zuen Berbetan Jaialdiak Errebalen

Martitzenean Berbetan Jaialdia eskaini zuen ...eta kitto! Euskara Elkarteak Errebalen. Irailean egitekoa zen jaialdia bertan behera gelditu zen eguraldi txarraren ondorioz eta aste honetan egin du bigarren saiakera euskara elkarteak, hori bai, Errebal Plazan badaezpada. Musika festak girotuta familia ugari hurbildu zen Errebalera, euskara praktikatzeko taldeak ikasturtea hasi dutela-eta elkarrekin ospatzeko. Disko Arima izeneko musika-festaren gidari jardun zuen DJ Mitxelek, heldu zein txikien gozamenerako.

Plastiko magikoaren ikastaroan izena emateko azkeneko egunak

Datorren martitzenean, urriak 28, ekingo dio ...eta kitto! Euskara Elkarteak Illunabarrian egitasmoari. Ikasturteko lehenengo tailerra "Plastiko magikoa" izenekoa izango da. Material berezi horrekin, eta beroaren laguntzaz, hainbat gauza egin ahal izango dira, hala nola giltzatakoak, belarritakoak... Izena emateko ...eta kitto!-ra jo daiteke (943200918/elkartea@etakitto.eus/ Urkizu 11 solairuartea). Izen-emateak 7 euro balio du (5 euro euskara elkarteko bazkideentzat).

Berbalagunak Pobaleko burdiñolara joango dira

Berbetan mintzapraktika-programako berbalagunek ikasturteko lehenengo irteera egingo dute bihar, zapatua. Autobusa hartuta Muskiz aldera joango dira, bertan dagoen Pobaleko burdiñola bisitatzera. 2004. urtean ateak zabaldu zituenetik museo bizia da El Pobal; izan ere, Bizkaiko industriaurreko jarduerarik inportanteenetako bi erakusten dira bertan: burdingintza eta errotaritza eta biharko bisitan bi makina hidraulikoak abian ikusteko aukera izango dute Eibarko berbalagunek. Behin bisita amaituta Zugaztietara joango dira eta, bertako kaleetan barrena ibili ondoren, han bazkaldu eta Eibarrera itzuliko dira.

“Gaza berreraiki eta, egun batean, Palestinako estatu independentea izango dugu”

YOUSEF ALHELOU • Palestinako *kazetaria eta zinegilea*

>>>

Palestinaren aldeko mobilizazioek markatu zuten joan den asteko agenda eta, tartean, bisita esanguratsua izan genuen herrian. Izan ere, Yousef Alhelou kazetari eta zinegile palestinarra izan genuen gurean ‘Gazako Fenixa’ dokumentala aurkezten. Bi egunetan eman zuten Coliseo antzokian eta azken bi urteotako sarraskiaren aurretik bere jaioterria nolakoa zen ikusteko balio izan zuen.

Testua **EKHI BELAR**
Bideoa **YANIRE SAGREDO**

Yousef Alelhou oso eskertuta agertu zen eibartarrek eta, oro har, Euskal Herriak Palestinari eskaintzen dioten babesagatik. Pelikula munduko hainbat tokitan aurkeztu du, bere mezuaren garrantziaren seinale, eta hemen ere oso inpaktu handia izan zuen. Gainera, tarte batean berarekin berba egiteko aukera izan genuen eta bere historia kontatu zigun.

Zer uste duzu sentitu dutela eibartarrek dokumentala ikustean?

Harrituta egongo dira palestinarrok zein sortzaile eta berritzaileak garen ikusita. Desagertzeari uko egiten diogu, bizitzeko determinazioa dugu. Bizitza maite dugu. Palestinarrak humanizatu nahi nituen. Ez gara zenbakiak, ez gara estatistikak bakarrik. Joan direnak hil egin dituzte. Israelek erail ditu. 70.000 pertsonak izen bat dute, familia bat dute eta etorkizunerako asmoak. Arreba, aiton-amonak, bilobak, senideak... Horietako asko hondakinen azpian ditut oraindik, eta horrela bi urtez. Asko maite izan ditut eta pertsona horiek ohoratu behar ditugu. Dokumentalean ateratzen diren pertsona asko hil egin dituzte. Gizaki arruntak garela senti dezaten nahi dut. Zuen seme-alabei justiziaren alde dugun borrokaz irakats diezaiezuen nahi dut. Israelen okupazioa sufritzen dugu 80 urtez. Eta jendea, noski, bideoa ikustean harritu egingo da Gaza zein ederra zen ikustean. Izan ere, sarritan Mendebaldeko hedabideetan Gaza gatazka, pobrezia, Hamas, Israel, zelaiak eta sufrimendu lekutzat erakusten saiatzen dira, baina nik alde positiboan enfokatu nahi nuen. Bizia maite dugu eta Israel gu erauzten saiatzen ari da. Ez dugu desagertu nahi. Han geratuko gara, Gaza berreraikiko dugu eta, egun batean, Palestinako estatu independentea izango dugu.

Eta zuretzat zer izan da dokumental hau egitea?

Nire hiriarekiko maitasun-gutuna da. Nire konpromisoa da, edozer egingo dudala palestinarrek autodeterminazioaren eta askatasunaren alde egiten duten borrokaren gainean kontzientzia altxatzeko. Filmak nire jaioterria gogorarazten dit, nire familiako kideak. Gazako azken erregistroak dokumentatzeko zortea izan nuela esan nahi du. Azken pertsona izan nintzen edertasun hau filmatzen. Beraz, altxor hau, edertasun hau, erresilientzia hau mundu guztiari erakustera behartua sentitzen naiz.

Oso esanahi sinbolikoa du izenburuak. Zer irudikatzen du Fenixak Gazan?

Joan den astean 'Gazako Fenixa' dokumentala Eibarren aurkeztu zuen kazetari eta zinegile palestinarrak. EKHI BELAR

Berpizkundea irudikatzen du. Gaza berriro altxatuko da. Israelek Gaza suntsitu eta jendea hiltzen duen bakoitzean, Israelek suntsitutakoa berreraikitzen dugu eta haur gehiago jaioko dira. Bizi-ziklo etengabea da. Fenixa Gaza hiriaren ikurra da eta han geratuko garela esan nahi du. Gu gara lur horretako herri indigenak eta, Israelek egiten duena egiten duela ere, ez gara desagertuko.

Dokumentala Israelek Gazaren suntsiketa hasi baino hilabete batzuk lehenago filmatu zenuen. Une horretan, grabatzen ari zinela, imajina zenezakeen horrelakorik?

Sekula ez nuen pentsatuko nire hiria suntsituko zutenik. Gerra moduko bat espero genuen, hondamendia,, erasoa, baina ez genozidioa. Harrigarria da munduak genozidio honek bi urtez jarraitzen lagatzea eta Israelek gu dehumanizatzea baimentzea. Palestinarren deshumanizazio eta demonizazio honek gelditu egin behar du. Gizaki arruntak gara. Ez gara beste ezer eskatzen ari. Libre izatea eta bizitza duina edukitzea nahi dugu.

Nola sentitzen duzu, kazetari zaren aldetik, Gazan sartu eta han gertatzen ari denaren berri ezin ematea?

Ironikoa da mundu osoan edozein herrialdetara bidaiatu ahal izatea, baina ez lurralde okupatuetara, hala nola Zisjordaniara, Jerusalemera edo Palestina historikora. Ezin dugu Ben Gurion aireportua erabili. Grazia egiten dit eta, aldi berean, haserretu egiten nau hipokresia egoteak, estandar bikoitzeko politika bat egoteak, eta honek erakusten du Israel palestinarren aurka praktikatzen ari den arrazakeria. Bisitatu nahi duten bisitari guztiei zabalik dagoen hiria izan beharko luke, baina sarritan Israelek palestinarrei elkartasuna adierazteko joaten direnak zigortzen ditu. Beraz, gazatarrok Kairoko nazioarteko aireportuaren bidez soilik joan gaitezke Gazara, eta Zisjordaniako jendea Ammanetik (Jordania) bakarrik joan daiteke.

Eta kazetari gehienak Gazara sartu ezin diren bitartean, sartzen direnak, bertan bizi diren kazetari palestinar asko, Israelek hil ditu. Nola sentitzen zara horren inguruan?

Israelek marra gorri guztiak zeharkatu ditu eta ez dago errudunik. Horregatik jarraitzen dute palestinarrei gizatasuna kentzen, kazetariak hiltzen, medikuak hiltzen... Haserre nago Israelek kazetariak hiltzeko

PELIKULAREN WEBGUNEA



baimena duelako. Kazetari palestinarrak heroiak dira. Ahotsik gabekoen ahotsa gara. Espero dut egunen batean munduak jakitea zein ausartak diren kazetari palestinarrak. Ironikoa da munduan giza eskubideen eta zibilizazioen kontzeptuak erabiltzea, baina Israelek nazioarteko eskubideak ez errespetatzea.

Nola konta daiteke egia nazioarteko hedabideek askotan errealitatea sinplifikatu edo desitxuratzen dutenean?

Badakit Israel ahal duena egiten ari dela propaganda zabaltzeko, gertaerak suntsitzeko eta egiten dituzten krimenak manipulatzeko. Egia izaten da gerrako lehen biktima. Beraz, gu, kazetari palestinarrok, egia den bezala transmititzen ari gara. Objektibotasuna, gardentasuna eta sinesgarritasuna bilatzen ditugu. Sarritan, haiek eten egiten dute Palestinako narratiba. Israelek propagandatik elikatzen ditu hedabide aliatuak, eta beraz, garrantzitsua da palestinarren ahotsak entzutea. Era berean, sare sozialak oso bitarteko boteretsuak dira. Sare sozialik gabe, gure narratiba ez zen mundu osora iritsiko. Sare sozialei esker, Israelek ezin ditu gertakariak ezkutatu eta Palestinan gertatzen ari denari buruzko erreportajeak alde batera utzi. Sare sozialak tresna boteretsua dira eta mundu guztiak jarraitu beharko lituzke bertan dauden kazetari palestinarrak.

Hainbeste heriotzen eta galeren ondoren, palestinarrek nola egiten diote aurre etorkizunari?

Israelek dio ez duela estatu palestinarra ezartzen utziko eta su-eten hau hauskorra dela. Edozein unetan kolapsa dezake. Trump ez da bake-gizon zintzoa. AEBetako administrazioak eta Europar Batasunak presioa egin behar diote Israeli okupazioa amaitzeko. Amaitzen ez bada, ez da inoiz bakerik edo egonkortasunik egongo Ekialde Hurbilean. Bestetik, ez dugu sintomez bakarrik hitz egin behar, gatazka honen arrazoi nagusiaz ere hitz egin behar dugu: lurralde palestinarren okupazioaz. Autodeterminazioa dugu helburu. Ez gara gelduko gure estatu independente propioa izan arte eta israeldarrek horretaz jabetu behar dute. Askapena eta independentzia lortu zuten nazio guztiek, borrokaren bidez lortu zuten. Nola egin diezaioke aurre Palestinak Israelen okupazioari? Gure lekuan jarri behar dute, eta ikusi ea onartuko luketen etengabe okupazio eta hilketaren pean bizitzea.

Eibartarrok zer egin dezakegu palestinarrei laguntzeko?

Genozidioa amaitu bada ere, nire mezua da ez diezaiotela Palestinaz hitz egiteari utzi. Pertsona batzuek diote: "Zergatik ari dira protestan? Gerra bukatuta dago". Ez, prozesu luzea da. Israelek Palestina okupatzen jarraitzen du. Beraz, espero dut kontzientziari eustea, kultura palestinarraren pelikulak erakustea, palestinarrak hitz egitera gonbidatzea, bake konferentziak antolatzea, hemendik Gazara ordezkaritzak bidaltzea, medikuak, akademikoak... Era guztietako babesa behar dugu: psikologoak, psikiatrak, espezialistak... Beraz, asko egin daiteke. Gobernuei ere presioa egin dakieke Israeli boikota egiteko, Palestina estatu gisa aitortzeko edo Palestinan ordezkaritza bulego bat izateko. Gazarekin anaitasun proiektu bat ere egin daiteke edo ikasle palestinarrak hemen ikastera gonbidatu. Hori da egin daitekeen gutxienekoa.

ALAITZ GARATE

Palestinako auziaz

Bi urte dira jada urriaren 7 hartatik. Bi urte Israelek Gazaren aurkako erasoaldia abiarazi zuenetik eta, horrekin batera, Palestinako lurretan izugarrizko sarraski eta masakrea gertatzen ari denetik.

Gainera, basakeria hau ezkutuan egin nahi izan du Israelek, Gazako komunikazio seinaleak blokeatuz eta kazetariak kanporatuz. Eraso militarraz gain, Israelek Gaza setiatu eta oinarrizko produktuen, elikagaien eta laguntza humanitarioaren sarrera ukatu du. Horren adibide dira laguntza humanitarioa zeramaten ontzien aurkako erasoak eta bertan zihoazen aktibisten atxilotze eta deportazioak.

Testuingurua hau izanik, gero eta jende gehiago entzuten da bakea eta elkarrizketa ospatzen, Palestinako genozidioaren testuinguruan Trumpek bere proposamena egin zuenetik.

Orain palestinar estatua onartzen omen dute batzuk, baina zer estatutaz hitz egin daiteke? Gaza suntsituta eta Zisjordania 700 mila kolono israeldarrez beteta dagoenean?

Urriaren 10ean lortutako su-eten akordioa gerraren fase berri baten parte da. Herri palestinarraren aurkako genozidioak beste forma batzuk hartuko ditu orain, ez hain zuzenak, baina herri gisa desagertzera bideratuak.

Akordio horrek ez dio askatasunerako bermerik eskaintzen Palestinari, eta ez du genozidioa gelditukо. Batetik, Israelek behin eta berriro frogatu duelako garbiketa etnikoa azken bururaino eramateko asmoa duela, eta akordioren batera iritsi denetan ere, ez duela hitza betetzen. Oraingo akordioa sinatu ondoren, Gaza bonbardatzen jarraitu zuen, esaterako. Bestetik, akordioak ez diolako bidea itxiko kolonizazio sionistari.

Israelen izaerak eta historiak erakusten digutenez, bi estatuen aterabidea ilusio faltsua besterik ez da. Israelgo aparatu politiko-militarra desegin beharra dago palestinarrek erabaki ahal izateko; hau da, lurralde osoa ibaitik itsasora deskolonizatzeko. Ez dago genozidioa gelditzerik, genozidak irauten badu.

Bestalde, Palestinar erresistentzia defendatu behar dugu. Gaur gaurkoz, Palestinar herria guztiz desagertu ez bada, milaka palestinarrek estatu sionistaren aurka egindako borrokagatik izan da.

Jarrai dezagun Israeli boikota egiten, genozidioa salatzen eta konplize guztien aurka kaleak hartzen. Palestina askatu! Israel desegin!

“Gaur gaurkoz, Palestinar herria guztiz desagertu ez bada, milaka palestinarrek estatu sionistaren aurka egindako borrokagatik izan da”

“Herritar autoantolatuek ez dute nahi dutena lortzen parean munstro handiak aurkitzen dituztelako”

JOKIN AZPIAZU CARBALLO • Soziologoa

Jokin Azpiazu Carballo soziologoak ‘Masculinidades y feminismo’ liburuaren bigarren edizioa aurkeztu zuen joan den eguenean, Andretxean. Hainbat lagun elkartu ziren bertan eta gaiaz hausnartu zuten denen artean. Azpiazuk esan bezala, bigarren edizio horrek berritasunak dakartza. Batetik, Mari Luz Estebanek egin du prologoa; eta bestetik, egileak lehen edizioak sortu zituen eztabaidak errepasatzen ditu eta epilogo moduko bat txertatu du.

Testua **EKHI BELAR**
Bideoa **YANIRE SAGREDO**

Mari Luz Estebanek argi dio: “Liburu honetako esaldi batzuk markoan jarri eta paretan jartzeko modukoak dira”. Virus argitaletxeak publikatu du ‘Masculinidades y feminismo’ liburuaren bigarren edizioa eta bere webgunean erosi daiteke. Eta, bestela, bertan irakurtzeko aukera ere badago, pdf-a deskargatuta.

Liburuaren bigarren edizioa kaleratu duzu. Nolako ibilbidea egin du lehen ediziotik hona?

Zazpi urte pasa dira lehen edizioa kaleratu zenetik. Virus argitaletxeak ohitura bat du: liburuan zerbait aldatzen bada bigarren edizioa egiten da. Hau da, kontua ez da liburua ezer aldatu barik berriz inprimatzea. Orduan, batetik, testuari zuzenketa txikiak egin dizkiogu. Adibidez, datu batzuk eguneratu ditugu. Bestetik, hitzaurrea Mari Luz Esteban antropologoak egin du. Lehen edizioan bere prologoa jartzeko ilusioa nuen, baina ezin izan zuen eta oraingoan bai. Eta, azkenik, aldaketa nagusiena da epilogo antzeko bat idatzi dudala bigarren ediziorako. Bertan, 2017tik 2024ra artean egon diren ezberdintasunak aipatu ditut.

Bigarren edizioa egiteko beharra ikusi duzu? Hau da, agian lehen edizioa zaharkituta gelditu dela?

Editorialak horretarako joera du eta testu askorekin egiten du berrikusketa hori: ea publikatu eta urte batzuetara testuak ondo funtzionatzen duen ala bigarren edizioa merezi duen. Lehen edizioa asko mugitu zen eta horrek aurrekari edo aukera bat sortzen du bigarren edizio bat egiteko, eta hortik badu zentzua txukuntzeko. Pentsatzen nuen gehiago damutuko nintzela 2017an idatzitako testuaz, baina ez da larregi izan. Bazeuden testu batzuk ez nituenak oso argi eta liburuan zalantza moduan agertzen direnak, eta zalantzan egoten jarraitzen dute.

Lehen liburuan zera planteatzen zenuen: “Maskulinitatea erreformatu, eraldatu edo abolitu egin beharko litzateke?”. Zalantza hori argitu duzu?

Ez, inondik inora ere. Esaldi hori probokazio modura bota nuen. Planteatzen nuena zen gai horren inguruko eztabaidak sakontasun minimo bat eduki beharko zukeela eta, normalean, sakontasun minimo bat edukitzeko, aukera guztiak mahai gainean jarri beharko liratekeela. Sasoi horretan, liburua idazten hasi nintzenean, oso perspektiba erreformista zegoela ikusten nuen. Gauzek funtzionatzeko ideia gizontasunean aldaketa txikiak egitean oinarritzen zen, baina, aldi berean, hondoan dagoen sistema asko ukitu barik.

'Masculinidades y feminismo' liburuaren bigarren edizioa aurkeztu zuen joan den astean, Andretxean. EKHI BELAR

Hortik planteatu nuen maskulinitatearen abolizioa. Genero-sisteman aldaketa sakonak egingo bagenitu, gizon ala emakume izateak zentzua edukitzeari laga beharko lioke. Eta, era berean, maskulinitateak eta feminitateak zentzua izateari utziko liokete, baina ez zentzurik ez dutelako, horretan nahikoa sakondu dugulako baizik.

Nolako ekarpena egin dio liburuari Mari Luz Estebanen hitzaurreak?

Mari Luzek normalean metaanalisiak egiten ditu horrelako gauzen inguruan. Bere hitzaurrean balioan jartzen du nola liburuan nolabaiteko bidaia planteatzen den, subjektu maskulinoaren nolabaiteko nahasmena eta horrek egiten uzteari aukera ematen diola. Izan ere, gizonok beti eduki dugu guk beste pertsonei gauzak egiteko joera eta ez guri egiten lagatzeko. Mari Luzek prologo atseginak egiten ditu eta horregatik nahi nuen berak idaztea (barreak).

Liburuan aipatzen da gizon taldeek ez dutela benetako aldaketa soziala lortzen. Zergatik gertatzen da hori?

Hori planteatu baino, gizonei ez diet egozten aldaketa sozialak sortzeko betebeharra. Hori asko izango litzateke. Bestela, berdin esan daiteke talde feministek ez dutela lortzen eraldaketa soziala. Hau da, herritar autoantolatuek ez dute nahi dutena lortzen, parean munstro handiak aurkitzen dituztelako. Ostera, liburuan bai planteatu dut momentu batean oso modan jarri zela konponbidea gizon taldeak egotea zela, gizonok gizonon artean berba egin behar genuela gure gauzen inguruan, gure portaerak aldatzeko, eta abar; baina nik planteatzen dut horrek badituela muga batzuk: autoerreferentzialtasuna, gure arazoez berba egiten dugunez gure arazoez bakarrik berba egiten amaitzea, beste problema batzuek gure perspektibatik bakarrik ikustea... Beraz, gizon taldeak ez dira formula bakarra. Talde batzuek oso lan txukuna egin dute maila askotan, baina momentu batean formula hori jarri zen arazo guztientzako konponbide bezala eta askotan ez da izan horrela.

Gizon taldeak sortu dira han eta hemen, baina nola ikusten duzu eztabaida honen egoera Euskal Herrian?

Badoa eta badator. Liburuaren aurkezpena egiten dudan bakoitzean errepaso txiki bat egin behar izaten dut, batzuetan hanka sartzen dudalako: adibidez,

BIDEOA

"orain ez dago hainbeste gizon talde, baina egon izan dira" esan, eta publikoak hainbat adibide eman eta agian ez nabil zuzen. Oso gorabeheratsua da eztabaida. Batzuetan talde gutxi egon daitezke, baina ikusgarritasun handiarekin; eta beste batzuetan talde gehiago dago, baina inor ez da enteratzen. Ez dut denak zaku berean sartzeko aukerarik ikusi. Ezaugarri oso partikularrak dituzte, batzuk alderdi edo mugimendu politiko konkretuen inguruan sortzen dira, beste batzuk emakumeen etxeetan parte hartzen duten gizonek elkar ezagutzen dutelako, baita ekimen instituzionaletik ere (lehen batez ere)... Gora eta behera doa eta horrek lotura du gaiari ematen zaion atentzioarekin. Batzuetan dirudi mundua une batetik bestera aldatuko dela, eta beste batzuetan ez. Jarraikortasun minimo bat lortzen duten kolektiboei balioa ematen diet, asmatu dutela dirudielako. Era berean, kolektibo batzuek urte askoan jarraitzen dute, baina akomodatuta daude eta azkenean lagun talde bilakatzen dira. Ez dago gaizki, baina horrek zenbateko gaitasuna du inguruan eragiteko?

Liburuaren bigarren edizioan erreakzio patriarkalaren olatua aipatzen duzu. Horrek nola eragiten dio maskulinitatearen inguruko eztabaidari?

Badago jarraikortasun bat lehen eta bigarren edizioen artean, oharrak errepasatzerakoan ikusi baitut zenbait gauzetan ez nenbilela hain gaizki. Lehenengo edizioan 'gizon onak' eta 'gizon txarrak' banatzearen inguruan jardun nuen. Esaten nuen oso gerturatze arriskutsua iruditzen zitzaidala. Izan ere, 'gizon txar' moduan maskulinitate mota batzuk karikaturizatu egiten ditugu, eta badirudi hortik kanpo dauden gizonak oso jatorrak direla, gaiztoak bisualki oso biolentoak diren bitartean. Gainera, hori arraza konkretuei lotzen zaie: "Gizon zuriak berdinzaleagoak dira", "latinoak eta marokoarrak, beste kultura batekoak direnez, matxistagoak dira"... Horrelako mekanismoak sortzen ditugu ihes egiteko. Orain, erreakzio patriarkalarekin oso antzeko mekanismoak sortzen ari gara. Gizon askok feminismoaren aurkako jarrera oso modu esplizituan adieraztearen kontuan jende gaztearekin lotzen da, hau da, nerabeekin, baina horren atzean dagoen arrazoi ia bakarra da gizarte helduak ezin duela bere porrota onartu puntu horrekin. Gauzak perspektiba berdinzale batetik aldatzen saiatu gara, ez dugu lortu, eta orain badirudi 15 urteko gazteek dutela errua Youtuben ez dakit zer ikusten dutelako. Erreakzio horiek gizartearen geruza guztietan daude eta horren froga dira, esaterako, erreakzio horiek erabiltzen dituzten alderdi politikoek geroz eta bozka gehiago jasotzen dituztela eta, noski, 15 urteko gazteek ez dituzte bozka horiek ematen. Beraz, lehenengo kontua izan beharko litzateke nola maneiatzen dugun lehen fase hori, diagnostikoa, eta nola gerturatu gaitezkeen horretara. Zentzu horretan, honekin gabiltza azken hilabeteetan: nola gerturatu gizarte kolektibo ezberdinetara eta, tartean, nola gerturatu gazteengana abiapuntua ez izanda "zuek duzue gertatzen ari denaren errua". Azken neurrian, eurek ikusten dutena da bizi direla ingurune batean, non denbora osoan eskatzen zaien gauza batzuen inguruko diskurtso eta perspektiba batzuek edukitzea, eta gero ikusten dute munduak ez duela horrela funtzionatzen. Eta hori ez da euren errua, beste batzuena baizik.

“Mugikorrik ez haurtzaroan, pantailaz gaindiko bizitzaren alde”

Altxa Burua mugimenduak I. Topaketa Orokorra egingo du bihar, zapatua, Eibarren. Zehazki, Eibarko Hezkuntza esparruan izango da, 09:45etik 13:00etara. Bertan izango dira Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako herrietako taldeak, eta ekitaldi irekia izango denez, herritar guztiak daude gonbidatuta bertaratzeko. Eibarko taldea ere bertan izango da.

Testua **IRATI ALVAREZ**
Argazkiak **IRUNE JAIO**

Telefono mugikorra gure egunerokoaren parte da, eta haurrak zein nerabeak ere ez dira salbuespena. Alabaina, erabilera horrek gero eta kezka handiagoa piztu du azken urteetan. Horregatik, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako zenbait gurasok eta hezkuntza-komunitateko kidek Altxa Burua mugimenduaren babesean ahotsa altxatu dute, ikastetxeak sakelako telefonorik gabeko arnasgune izatea eskatzeko. Eztabaida iritsi da Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordera ere, eta gizartean zabaltzen ari da galdera bera: zer leku izan behar du pantailak haurtzaroan?

Galdera horri erantzuna ematen saiatuko dira bihar Eibarren egingo den Altxa Burua mugimenduaren topaketa orokorrean. Jardunaldia ongietorri eta irekiera instituzionalarekin abiatuko da, eta ondoren —10:00etatik 11:00etara— Francisco Villar Cabeza doktorearen hitzaldia izango da. Villar Bartzelonako Hospital Sant Joan de Déuko haur eta nerabeen suizidioaren prebentzio programaren koordinatzailea da, eta aditua da osasun mentalaren eta arrisku-jokabideen prebentzioan. Doktoreak dioenez, pantailen erabilera goiztiarrak eta sare sozialen gehiegizko esposizioak haurren garapen emozionalean eta sozialean eragina izan dezakete. Villarren mezua argia eta zuzena da: "Haurrek pantailarik gabe hazi behar dute, bestela bizitza galduko dute".

Francisco Villar doktorea aditua da osasun mentalaren eta arrisku-jokabideen prebentzioan.

Haurren bizitza "berreskuratzeaz"

Hitzaldiaren ardatza izango da haurtzaroaren defentsa. Hasteko eta behin, nerabeak haurrak ere badirela gaineratu du adituak: "Autonomia gehiago badute ere, haurrak dira oraindik". Azpimarratu duenez, adin txikikoen bizitza gero eta gehiago murrizten ari da pantailen eraginez: "Jolasa, aspertzea eta harremanak egiteko gaitasuna galtzen ari dira. Eta horiek dira haien garapenaren oinarriak". Bere esanetan, gaur egun haur eta nerabe askok denbora gehiegi igarotzen dute pantailen aurrean. "Gainera, denbora horretan ez dute benetan ikasten eta ez dira emozionalki garatzen".

Alarmak piztuta: ziberjazarpena suizidioak, eta mendekotasunak

Adituaren arabera, azken urteetako

>>> "Ikasketa prozesuan, arkatza eta papera dira garapen kognitiboaren tresna nagusiak. Pantailak ez dira beharrezkoak"

>>> "Haur bati mugikorra ematea alkohola edo tabakoa eskaintzearen parekoa da"

datuak kezkagarriak dira. "Osasun mentaleko zerbitzuetan gero eta kasu gehiago ikusten ditugu: suizidio saiakerak, antsietatea, garapen-atzerapenak... Egoera horiek guztiek pantailen erabilerarekin lotura estua dute".

Kasuen gorakadaren aurrean, herritarrak mugitzen hasi dira: "Zientziak berandu dakar froga, erakundeek ez dute erreakzionatzen, eta gurasoek hartu dute lehen lerroa. Altxa Burua bezalako mugimenduak arazoari aurre egiteko sortu dira".

Prebentziorako, sakelakorik ez 16 urtera arte

Prebentzioaren inguruan ere argi mintzatu da: "Ez dago sekreturik: 16 urtera arte ez dute sakelakorik behar. Ez dago beste biderik". Interneterako sarbidea bera arriskutsua dela dio, "ziberjazarpenagatik, eduki sexual kaltegarriengatik eta mendekotasunagatik".

Era berean, mugikorrarekiko menpekotasuna ezagunak ditugun bestelako adikzioekin alderatu du: "Haur bati mugikorra ematea alkohola edo tabakoa eskaintzearen parekoa da. Ez dute haur guztiek kalte bera jasango, baina guztiek dute arriskua".

"Teknologia ez da etsai bat, baina ez da haur eta nerabeentzako"

Villar ez da teknologiaren aurkako diskurtsoaren aldekoa, haren erabilera desegokiaren aldekoa baizik. "Teknologia tresna gisa behar dugu, baina haurrek ez. Autoak ere behar ditugu, baina ez diegu 10 urteko umeei gidatzen uzten. Pantailak helduentzat dira. Haur eta nerabeek, aldiz, denbora behar dute mundua esperimentatzeko, ez digitalizatu eta haien menpeko bihurtzeko".

Eskola eta etxeetan pantailak kanpora

Ikasgeletan pantailek duten tokia ere zalantzan jarri du adituak. "Ikasketa prozesuan, arkatza eta papera dira garapen kognitiboaren tresna nagusiak. Pantailak ez dira beharrezkoak. Hezkuntzako langileek askotan esan digute eskolan pantailak kendu dituztenean, berehala hobetu dela giroa: gehiago jolasten dute, gatazka gutxiago dago eta ikasleen arreta handiagoa da".



Hobekuntza horiengatik, gero eta familia gehiagok erabakitzen dute seme-alabei lehenengo sakelakoa beranduago ematea. "Guraso askok horrelako erabakiak hartzen duten tutore bakarrak direla uste dute, eta, ondorioz, lortu nahi dutena ezinezkoa dela. Bestalde, gero eta gehiago dira, eta sarean aurkitzen dute indarra. Hori da Altxa Buruaren indarra".

"Egin teknologia-buruek egiten dutena, ez esaten dutena"

Diskurtsoan badu mezu probokatzaile bat ere: "Teknologia handietako zuzendariek ez diete pantailarik ematen seme-alabei. Haiek badakite zertaz ari diren. Egin haiek egiten dutena, ez esaten dutena (hau da, seme-alabei mugikorra ematea edo Interneterako sarbidea erraztea)".

Azpimarratzen duenez, jarrera hau ez da kontserbadurismoa, "zientzia eta esperientzia klinikoa" baizik. "Esan bezala, pantailen erabilera goiztiarrak garunaren garapena oztopatzen du eta harreman sozialak kaltetzen ditu".

"Gurasoen ekintzari esker, paziente gutxiago ditut"

Azken mezuan, Altxa Buruaren parte diren –edota ideiak partekatzen dituzten- gurasoei zuzendu zaie Villar: "Esker ona baino ezin diet adierazi. Haiei esker nire seme-alabak hobeto bizi dira eta nire pazienteak gutxiago dira. Gizartea aldatzen ari dira, eta ziur nago gure haur eta nerabeen etorkizuna babestea lortuko dugula. Hori da benetako iraultza".

55 lagun inguruk hartu zuten parte Udazkentrailean

EKHI BELAR

Klub Deportiboko Mendi Taldeak eta Kalamua Korrikalari Taldeak antolatutako Udazkentraila egin zen domekan, urriak 19. Antolatzaileen berbetan "arrakastatsua" izan zen, 55 lagun inguruk parte hartu zuten-eta.

Hego-haizeak lagunduta, Urko inguruan prestatutako ibilbideari (14,6 km eta 835 metroko igoera metatua) ekin zioten mendi-korrikalariek eta lagun giroan egin zuten bidea.

Antolatzaileak zein parte-hartzaileak pozik geratu ziren aurtengo Udazkentrailarekin, antolatzaileek esan digutenez. "Alde batetik, ibilbide berriak ezagutzeko aukera izan zutelako; eta bestetik, askorentzat mendian korrika egiten zuten lehen esperientzia izanik, asko eskertzen dute taldean joatea eta denak elkartzeko ibilbidean zehar geldialdiak egitea", dioskue.

Gauzak horrela, antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete parte hartzera animatu ziren guztiei eta hurrengo trail irteerara gonbidatu nahi dituzte, Gabontrailera.

Gabontraila, abenduaren 24an, goizeko 08:30ean egingo da eta, ohiturari jarraituz, Kalamuara igoko dira, ondoren Parlamentuan kabarekin eta turroiarekin ospatzeko. Plan bikaina Gabonei hasiera emateko.

Pello Osoro Gandiako Triatloian nagusi

E.B. Sasoi betean dago Pello Osoro. Zapatuan Gandiako ICAN triatloia jokatu zen eta aise nagusitu zen distantzia erdiko proban, 7:45ko aldea atera baitzion helmugan Adrian Escrig bigarren sailkatuari David Blasco izan zen hirugarren, 8:03ra). Batez ere, bizikletan eta korrikan erakutsi zuen nagusitasuna.

Igeriketa saioa ez da Osororen punturik indartsuena eta oraingoan ere ez zen salbuespena izan. Oscar Espinosa izan zen lehena uretatik irteten, baina txirrindularitza saioan gauzak eibartarraren alde jarri ziren. 1:45:36 partzialarekin, Osorok lidergoa hartu zuen bizikleta gainean eta gero, antxintxiketan, hegan egin zuen. 1:17:49 partziala ezarri eta 3:36:09 denborarekin iritsi zen helmugara, bigarrenari zazpi minutu baino gehiagoko aldea sartuz.

Osoro oso pozik agertu zen emaitzarekin, baina anaia Txominekin gozatzea gustatuko litzaiokela onartu zuen sare sozialen bitartez

CD Urki garaipenaren bidera itzuli da

E.B. Azkeneko partiduetan porrotak jasan ondoren, Ohorezko Erregional Mailan dabilen CD Urkik garaipena lortu zuen asteburuan Andoainen. Oso neurketa lehiatua izan zen eta eibartarrak finago ibili ziren, 3-4 irabaziz.

Harrobiko taldeek honako emaitzak lortu zituzten: Ohorezko Erregionalean, Euskalduna 3-4 CD Urki; 1. Erregionala, Urki JMR 1-1 Elgoibar; Jubenilen Euskal Liga, Cultural 4-0 Urki Eibarbus; Jubenilen Gorengoa, Urki ABC 2-2 Zumaiako; Jubenilen 1. Maila, Urki Hapiick 4-1 Aloña Mendi; Kadeteen Gorengoa, Mondragon 5-1 Urki Heganrent; Kadete 1. maila, Urki Boj 6-1 Ikasberri; Infantila, Zumaiako 3-0 Urki Beltran; Infantil Txiki, Urki Larragest 0-15 Zumaiako; Gizonezko Alebina, Urki Engimek 0-12 Elgoibar; eta Emakumezko Alebina, Bergara 3-1 Urki JAZ.

Malapek garaipena besterik ez du ezagutzen

Futbol zaletuaren sailkapeneko lehen bi taldeen arteko lehia jokatu zen asteburuan eta liderra atera zen garaile. Malape eta Xania tabernen arteko partidua 2-0 amaitu zen lehenengoan alde, Xabier eta Ikerren golei esker, eta bost puntuko aldea ateratzen dio orain bigarren sailkatuari, Bar Maremi.

Maremek azken partiduetan burua altxatu duen Kalaka Buenos Airesen jokatu zuen eta, kostata izan arren, 2-1 irabazi zion.

Sailkapenaren azkenengo postuetan dabiltzan taldeei dagokienez, Limpiezas Ruedak denboraldiko lehen garaipena lortu zuen Adahi Etxegiri 1-2 irabazi ondoren.

SAILKAPENA

1. Malape Taberna, 18 puntu
2. Bar Marem, 13 puntu
3. Xania Taberna, 12 puntu
4. Bergara Pneumatikoak, 10 puntu
5. Kalaka Buenos Aires, 6 puntu
6. Garajes Garcia, 6 puntu
7. Adahi Etxegi, 3puntu
8. Limpiezas Rueda, 3 puntu
9. Baserri, 0 puntu

Eibar Rugby Taldea irabazle Unben

E.B. Denboraldiko bigarren partiduan bai, Eibar Rugby Taldeak lortu du denboraldiko lehen garaipena. Emakumezkoen Ohorezko B Mailako taldeak Bartzelonaren aurka galdu zuen ligako lehen partiduan, baina beste talde kataluniar bat aurrean izanik, ez zuen irabazteko aukera galdu.

UE Santboiana jaso zuen domekan, Unben, eta maila ona erakutsi zuen, neurketa 36-12 irabaziz. Horrela, eibartarrak 5. postuan daude orain, 5 punturekin, eta asteburu honetan berriz jokatuko dute etxean, kasu honetan At. Portuenseren aurka.

Txingudiren aurka

Eibar Rugby Taldeko gainerako taldeek, Txingudi izan zuten aurkari. Horrela, gizonezkoen senioren taldeak 24-24 egin zuen Txingudirekin, 18 urtez azpikoek 19-66 irabazi zuten eta 16 urtez azpikoek 64-12 galdu.

Porrot lazgarriak Urbateko talde seniorrentzat

E.B. Emakumezkoen Euskal Herriko Waterpolo Ligaren 2. jardunaldia jokatu zen asteburuan eta Urbat waterpolo taldekoek denboraldiko lehen partidua jokatu zuen etxean. Askartza A izan zuten arerio eta partidu ona jokatu zuten, berdinketa lortuz, "baina ofizialki neurketa galdutzat eman ziguten, arazo tekniko batengatik", klubetik esan digutenez, eta azkenean 14-15 amaitu zen.

Gauza horrela, talde eibartarrak puntu barik jarraitzen du eta asteburuan Iruñean jokatuko du WP Iruña 98 02 B taldearen kontra.

Estatu mailako 2. mailan jokatzen duen Urbatek Dos Hermanas talde indartsua hartu zuen, zapatu gauean, Donostiko Paco Yoldi igerilekuan. Sevillarrek munduko txapeldun izan diren hiru jubenil dituzte taldean eta beste bost jokalarik bekak dituzte errendimendu handiko zentroan.

Dena dela, eibartarrek "partidu bikaina" jokatu zuten, esan digutenez, eta 4. zatian 8-7 joan ziren markagailuan aurretik. Gainera, beste gol bat sartzeko aukera eduki zuten, baina ez zuten asmatu eta, azkenean, partidua 8-9 amaitu zen andaluziarren alde.

Paleta gomako eta eskuz banakako eta binakako partiduak

E.B. Astelena frontoiko kartelera bizi dator aste honetan. Izan ere, atzo, urriak 23, Paleta Gomako Gipuzkoako Binakako Txapelketako partidua jokatuko zuten Amas eta Leturiagak Andoaingo Belaunzaran eta Loidiren kontra, eta gaur ohiko jaialdia jasoko du, 18:00etatik aurrera. Lehendabizi, Errendimenduko Gipuzkoako Eskuz Banakako Txapelketako bigarren jardunaldiko partiduak jokatuko dira eta Klub Deportiboko gazteek "ilusioz" jokatzen dutela esan digute.

Hasteko, infantiletan, Arrieta eibartarrak Azpeitiko Urbistondoren aurka jokatuko du, eta Saezek beste azpeitiar bat izango du aurrean, Larrañaga hain zuzen ere. Alebinetan, ostera, Segurolak Lete azkoitiarra izango du aurrez aurre.

Jarraian, Gipuzkoako Eskuz Binakako Txapelketako final laurdenak jokatuko dira Astelenan eta, bertan, Narvaiza eta Conde Urnietako Ecenarro eta Odriozolaren aurka lehiatuko dira. Orain arte, Eibarko seniorrek partidu guztiak irabazi dituzte eta final erdietarako garaipenaren bila aterako dira.

Donibane Garazikoen bisita

Joan den domekan, urriak 19, Donibane Garaziko pilota eskolako ordezkari gazteak etorri ziren Astelena frontoian programatuta zegoen jaialdian parte hartzera, Depor Egunaren egitarauaren barruan.

Deporrekoen berbetan, "Goizeko Izarra klubeko pilotariek erakustaldi bikaina eskain zuten katedralean eta hartu-eman aberatsa izan zen herriko pilotari alebin eta infantilentzat". Jaialdiaren ondoren, gainera, anaitasun bazkaria egin zen Depor tabernan.

Goiko argazkian ikusi dezakegu oso giro ona sortu zela pilotarien artean.

SD Eibar-en lau jokalari euren selekzioarekin arituko dira egunotan

E.B. Asteburu honetan denboraldiko lehen geldialdia egingo dute F Ligan. Izan ere, selekzioen arteko partiduak jokatuko dira eta jokalari askok euren herrialdearen elastikoa defendatu beharko dute. Adibidez, SD Eibar-en lau jokalari joango dira selekzioarekin asteburu honetan: Eunate Astralaga, Opa Clement, Alimata Belem eta Emma Moreno.

Eunate Astralaga atezainak Espainiako selekzioaren deia jaso du lehen aldiz eta Nations Leagueko finalaurrekoetako bi partiduak jokatuko ditu Suediaren aurka: bata, gaur, Malagan, 20:00etan; eta bestea, 28an, Goteborgen, 19:00etan.

Espainiako selekzioarekin joango da Emma Moreno ere, baina 19 urtez azpikoekin. Frantziaren aurka bi lagunarteko jokatuko ditu Alacanten, bihar eta 28an, 11:00etan.

Opa Clement tanzaniarrak Afrikako Kopara sailkatzeko bi neurketa jokatuko ditu Etiopiaren kontra. Lehen partidua eguaztenean jokatuko zuen, Dar er Salaamen, Tanzaniako hiriburuan. Bigarrena, bestalde, 28an izango da, Etiopian, 13:00etan.

Alimata Belemek ere Afrikako Kopara sailkatzeko partiduak jokatuko ditu Burkina Fasorekin. Bere kasuan, Togoren aurka. Gaur Ouagadougoun jokatuko du, Burkina Fasoko hiriburuan, 18:00etan; eta 28an, Lomen egongo da, Togoko hiriburuan, 17:00etan hasiko den neurketan.

Atsedena asteburuan

Asteburuan F Ligako partidurik egongo ez denez, SD Eibarrek atseden hartuko du asteburu honetan, eta hurrengo partidua A Coruñako Deportivoren aurka jokatuko du Ipuruan, azaroaren 1ean, 16:00etan.

Joan den asteburuan Realaren aurka 0-3 galdu ondoren, 7 punturekin 13. postuan daude orain eibartarrak.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Gizonezkoen 2. Maila
EIBAR - Leganes (bihar, 16:15)

Gizonezkoen 2. Maila RFEF
EIBAR B - Real Union (bihar, 19:00)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF
EIBAR C - Leioa (etzi, 12:00)

Erregionaleko Ohorezko Maila (gi)
URKI - Mondragon (etzi, 12:35)

Erregionaleko Gorengo Maila (gi)
Ordizia - EIBARTARRAK (bihar, 16:30)

Erregionaleko 1. maila (gi)
Axular Lizeoa - URKI B (etzi, 15:30)

Jubenilen Ohorezko Maila (gi)
Santutxu - EIBAR (etzi, 19:00)

Jubenilen Nazional Liga (gi)
Real Sociedad B - EIBAR B (bihar, 17:30)

Jubenilen Euskal Liga (gi)
URKI - Deusto (bihar, 12:35)

FUTBOL-ZALETUA

- Baserri - Kalaka Bs. As (bihar, 09:00)
- Marem - Xania (bihar, 10:30)
- Garajes Garcia - Malape (etzi, 09:00)
- Adahi Etxegi - Bergara Pn. (etzi, 10:30)
- Atsedena: Limpiezas Rueda

ESKUBALOIA

Zilarrezko Maila (em)
EIBAR ESKUBALOIA - Malkaitz (bihar, 17:00)

1. Maila Nazionala (gi)
Loyola - EIBAR ESKUBALOIA (bihar, 18:00)

Seniorren Euskadiko Liga (gi)
EIBAR ESKU. B - Urdaneta (bihar, 19:00)

Seniorren 1. Lurraldekoa (em)
EIBAR ESKUBALOIA B - Txingudi (etzi, 11:45)

SASKIBALOIA

Gipuzkoako 1. Maila (gi)
Mundarro - ART. JUANTXO (bihar, 18:00)

Gipuzkoako 2. Maila (em)
EIBAR SASKI. - Zast Oak (gaur, 20:15)

WATERPOLOA

2. Maila Nazionala (gi)
Colegio Brain - URBAT (bihar, 17:00)

EH-ko 1. Maila (gi)
Askartza B - URBAT B (bihar, 11:30)

ERRUGBIA

Ohorezko B Maila
EIBAR RT - At. Portuense (bihar, 16:00)

Kirol albiste gehiago gure webgunean

MIREN CID • Matraka Gazte Feministen taldea

“Feminismoa da gure lubakia, olatu faxistari aurre egiteko arnasgunea”

Miren Cid, Matraka taldeko kide eta Eibarko gazte feminista, Zaldibarren egingo den Baterajotzea 2025ari buruz aritu da: gune ez-mistoen indarraz, saretzearen beharrari eta borroka feministaren erronka berriez hausnartu du.

Bideoa ikusi eta entzun nahi?

Testua eta argazkiak IRATI ALVAREZ
Bideoa YANIRE SAGREDO

Urriaren 31tik azaroaren 2ra, Zaldibar Euskal Herriko gazte feministen topaleku bihurtuko da, Baterajotzea 2025 ospatuko delako bertan. Hiru eguneko egitarau oparoak hausnarketa, saretze eta borroka feministaren inguruko jarduerak eskainiko ditu, eta aurten, bereziki, gune ez-mistoen garrantzia azpimarratuko da. Hori dela eta, elkarrizketa hau egiteko aukera izan dugu Miren Cid-ekin, Matraka taldeko kide eta Eibarko gazte feministen belaunaldi berriaren parte denarekin. Harekin hitz egin dugu Baterajotzeak zer esan nahi duen gaur egun, gazte feministen erronkez eta nola bizi duten saretze eta borroka prozesu hau euren ikuspegitik.

2021. urtean egin zenuten lehendabiziko Baterajotzea. Lau urte hauetan nolako bilakaera izan du elkarguneak?

MIREN: Aipatu beharra dago Baterajotzeak badituela aurrekari batzuk. Adibidez, 2017 eta 2018an lehenengo Udaleku Feministak antolatu zituzten Euskal Herriko Gazte Feministek. Udaleku haietan ikusi zuten Euskal Herri osoko gazte feministak elkartzeak zer nolako potentzialtasuna zuen. Ordutik aurrera, jardunaldi eta ekintza desberdinak egin zituzten eta horrela, 2021ean egin zen lehen Baterajotzea.

Saretzeko helburua zuen, beraz, lehendabiziko Baterajotzeak?

MIREN: Bai. Kontuan izan behar da testuinguru zail batean kokatu zela. Pandemia garaia zen eta, beraz, momentu hartako egoera hartu genuen kontuan. Krisi anizkoitz batean geunden (baita gaur egun ere) eta pandemiak egoera hori azaleratu zuen. Baterajotze horretan feministok krisiaren aurrean zer egin genezakeen hausnartzeko eta eztabaidatzeko elkartu ginen. Atera zen ondorioa garbia zen: “Feminismoa da gure lubakia, olatu faxistari aurre egiteko arnasgunea”.

Aurtengoan ere hausnartu, ideiak elkarbanatu eta saretzeko elkartuko zarete.

MIREN: Bai, baina beste bide batetik helduko diogu topaguneari. Gaur egungo testuinguruari erreparatuz, politika eta jarrera erreakzionarioak, faxistak, zabaltzen ari dira. Modu berean, nahiko testuinguru krudela bizi dugu: pobreziak, prekarizazioak, genozidioak eta despolitizazioak zeharkatzen gaituzte. Testuinguru horri feminismotik, “gure lubakitik”, nola aurre egin hausnartuko dugu.

"Feminismoa lubaki” da Baterajotzearen leloa. Azalduiguzu gehiago.

MIREN: “Feminismoa lubaki” izango dela diogunean, gaur egun dugun testuinguruari aurre egiteko dugun modua feminismotik izango dela diogu. Feminismoa da gure arnasgunea, tresnak eta aliantzak sortu eta datorren olatu faxistari aurre egiteko dugun modua.

Euskal Herrian ere olatu faxista hori nabarmena da?

Eibarko Matraka Gazte Feministen taldea eta Miren Cid kidea.

MIREN: Nik uste dut baietz. Ez da Espainia mailako kontua soilik, Euskal Herrira ere heldu da. Horren erakusle da pobretze maila altua, etxegabetzeak, geroz eta pribatizazio gehiago daukagula, etab. .

Kalean ideia faxistak zabaltzen ari direla igarri duzu?

MIREN: Esango nuke beti izan direla horrelako ideiak. Bestalde, feminismoaren edota ezkerraren gorakadarekin gizartean kontrako ideiak azaleratu ohi dira. Egia da, duela urte batzuk ideia faxistak zituztenek ezkutuan edo lotsarekin defenditzen zituztela ideia horiek. Gaur egun, aldiz, ohikoago bilakatu dira diskurtso matxista, faxista eta arrazistak. Normalizazio horrek erraztu egin du ideiak lotsarik gabe azaleratzea.

Elkargune ez-mistoaren potentzial politikoari garrantzia eman nahi diozue aurtengo Baterajotzean. Zergatik gune ez-mistoak?

MIREN: Heterosexualitatearen egiturazko izaera ulertu eta patriarkatua ulertzeko modua berrezarri genuen duela urtebete. Horrela, gure subjektu politikoa zabaldu zen: 'Neska*' lehen, 'Gazte' orain. Baterajotzean parte hartzeko subjektua ere zabaldu da, beraz.

Feministen topaguneari begira, zer antolatu duzue aurtengoan?

MIREN: Egitarau zabala prestatu dugu. Alde batetik, ideiak eztabaidatzeko eta hausnartzeko mahai inguru zentralak eta tailerrak izango dira (autodefentsa, zaintza, mugimendu transmaribibolloa moduko gaiak jorratuko dira bertan).

"Baterajotzea ez da hausnarketa eta haserrea erakusteko espazio bat soilik, gozamenerako ere bada"

MIREN CID

Eta bestetik, aisialdirako momentua ere izango da. Izan ere, mugimendu feministatik uste dugu Baterajotzea ez dela soilik hausnarketarako eta haserrea erakusteko espazio bat, gozamenerako momentuak ere izan behar ditugula uste dugu. Hain zuzen ere, gabeko eskaintzan kontzertuak eskainiko ditugu eta Drag Show-a ere egongo da.

Zer esango zenieke herritarrei?

MIREN: M8 edo A25 guztietan kalera irtetzen zareten feminista guztiak, herriko jaietan Brigada Morean izaten zaretenak, eraso matxistei aurre egiten diezuenak... gazte feminista oro Baterajotzera etortzera gonbidatuko nuke, saretzeko, elkar ezagutzeko eta ikasteko aukera ezin hobea baita.

Asier Errasti Film Laburren Jaialdia azaroaren 3tik 8ra

S.H. Azaroaren 3tik 8ra egingo den Asier Errasti Film Laburren Jaialdian ikusgai egongo diren film laburrak zeintzuk izango diren eman dute jakitera Plano Corto elkartekoek. Lehiaketara aurkeztu diren lan guztiak ikusi eta gero, jaialdiaren antolatzaileek 51 laburmetrai aukeratu dituzte proiekzioetarako. Horrela, azaroko lehen astean egunero eskainiko dituzte emanaldiak, astelehenetik barixakura bitartean, 19:30etik aurrera Coliseo antzokian. Irabazleei sariak banatzeko ekitaldia, berriz, zapatuan, azaroaren 8an egingo dute, hori ere Coliseon. Jaialdirako sarrera, betiko moduan, doakoa izango da.

Itturria-goikoa baserrira irteera antolatu du Basaguneak

S.H. Basagune elkarteak *Gure ekoizleak* zikloaren barruan antolatuta, bihar (zapatua) Itturria-goikoa baserrira irteera egingo da. Errebal Plazan, Basan elkartuko dira, 09:00etan, oinez igotzeko. Bisita Santa Kurutzen hasiko da, 10:30ean, eta behiak, behorrak eta txerrien borda ikusiko dituzte, besteak beste. Nahi izanez gero, Santa Kurutzeraino automobilez joan daiteke. Eguraldi txarra balego, irteera bertan behera gelditukо da . Izena emateko edo informazioa eskatzeko 686 20 47 38 telefonora deitu daiteke.

Judash taldearen kontzertua zapatuan Guridi tabernan

S.H. Euriarengatik martxoan kontzertua bertan behera laga ondoren, eibartarrek etxean joko dute bihar (zapatua), 21:00etik aurrera Guridi tabernan (sarrera doakoa izango da). Judas Argarate izenarekin ezagutu genuen taldea, baina iaz izena moldatu eta hori baliatu dute lehen diskoari izenburua jartzeko. Horrela, Markel Iraolak, Joseba Goñik, Hodei Otegik eta Ekaitz Vegasek *Judash* kaleratu zuten 2024aren amaieran.

Mikel Urkolak hirugarren diskoa kaleratu berri du

S.H. Eibartarrak bere hirugarren lana, *Hacia el Punto Omega* izenekoa aurkeztu berri du. Zortzi kantaz osatutako disko honetan, Urkolak gogoeta musikal eta espirituala proposatzen du, hil den Aita Frantziskori eta Pierre Teilhard de Chardin filosofoaren *Puntu Omega* kontzeptuari eskainia. Josu Muñoa musikagile bizkaitarraren laguntzarekin grabatu du diskoa. Urkolak azaldu duenez, "lana fedetik, hausnarketatik eta gizakiaren bide espiritualaren zentzua bilatzeko nahitik sortu da".

Akuarela erakusketa inauguratuko dute bihar

S.H. Euskal Akuarelarien Elkartearen (AVA-EAE) eskutik, bihar (zapatua, urriak 25) nazioarteko akuarela erakusketa zabalduko dute Portalean, 18:30ean. Gainera, erakusketa zabaltzearekin batera, master class berezia eskainiko du Nono Garcia artistak, bihar bertan, 11:00etan. Erakusketa azaroaren 16ra arte egongo da ikusgai, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era. Ikusgai ipini dituzten lanei buruzko azalpenak entzun nahi dituztenentzat, gainera, bi bisita gidatu antolatu dituzte, dohainik: urriaren 29an izango da lehena, gazteleraz; eta azaroaren 12an bigarrena, euskaraz. Egun bietan 18:30ean hasiko da bisita.

Gaur banatuko dira Indalecio Ojanguren Sariak Portalean

S.H. Gaur arratsaldean banatuko dituzte Indalecio Ojanguren XXXVIII. Argazki Lehiaketako sariak Portalean, erakusketa-gelan, 19:00etan hasiko den ekitaldian. Horrekin batera, erakusketa zabalduko dute bertan, edizio honetan saritutako argazkiekin eta antolatzaileek aukeratu dituzten beste lan batzuekin. Azaroaren 16ra arte egongo da ikustera joateko aukera, ohiko ordutegian.

Liburutegien eguna Gabriel Arestirekin ospatzeko gonbita

S.H. Liburutegien eguna ospatzeko ikuskizun berezia eskainiko dute gaur 19:00etan Portaleko areto nagusian: *Gabriel Arestirekin*, Gabriel Aresti Segurolaren heriotzaren 50. urteurrena den honetan Kandido Urangak eta Inaxio Tolosak sortutako antzezlana. Kandido Urangaren berbetan, aspalditik zor zuen emanaldia. Batetik, *Harri eta herri* liburuko 'Q' poema entzungo du publikoak eta, bestetik, idazlearen alde pertsonalagoa ezagutzeko aukera egongo da, Pedro Alberdi eibartarraren *Gabriel Aresti Eibarren* ipuinari esker. Sarrerak 5 euro balio du eta Portalean bertan erosi daiteke, ikuskizunaren aurretik.

Aire zabaleko pintura-lehiaketa egingo da domeka goizean

S.H. Aire zabaleko XLVIII. pintura-lehiaketa deitu du Udalak domekarako, Eibarko Artisten Elkartearen laguntzaz. Izen-ematea eta materialaren zigilatzea egunean bertan egingo dira, 08:30etik 10:00etara udaletxean. Lanak 13:30erako entregatu beharko dira, eta sari-banaketa jarraian, 14:00etan egingo da.

Musika Bandaren kontzertua

S.H. Areto barruko denboraldia hasiko du Eibarko Musika Bandak domekan, urriaren 26an, 12:30ean Coliseon emango duen kontzertuarekin. Andoni Vazquezen zuzendaritzapean, sei pieza hauek joko dituzte: *La Calasera* (F. Alonso), *La Cancion del Olvido* (J. Serrano), *Basque Rhapsody* (M. Shelton), *Granada* (A. Lara) eta *The Best of Charles Aznavour* (R. Kernen). Sarrera dohainik da.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

6				9	4			
					1		5	4
			5	8			9	
2		6					3	
4	5						8	6
	3					9		2
	8			6	7			
5	6		2					
			8	4				7

6	2	5	3	9	4	7	1	8
8	9	3	6	7	1	2	5	4
7	4	1	5	8	2	6	9	3
2	7	6	9	1	8	4	3	5
4	5	9	7	2	3	1	8	6
1	3	8	4	5	6	9	7	2
3	8	4	1	6	7	5	2	9
5	6	7	2	3	9	8	4	1
9	1	2	8	4	5	3	6	7

s u d o k u a

4	1	2	3	6	8	5	7	9
7	9	6	2	5	1	3	8	4
5	3	8	4	7	9	1	6	2
8	4	9	7	2	3	6	1	5
2	7	3	5	1	6	4	9	8
6	5	1	9	8	4	2	3	7
3	8	7	6	4	2	9	5	1
9	2	5	1	3	7	8	4	6
1	6	4	8	9	5	7	2	3

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

								9
			2			3		4
	3			7	9		6	
	4			2	3			5
			5		6			
6			9	8			3	
	8		6	4			5	
9		5			7			
1								

12 desberdintasunak

Urriak 24 / Urriak 30

BARIXAKUA 24

ASTEKLIMA
17:00/19:30 "Klima-aldaketaren inguruko zientziatailerrak familian". Errebal Plaza. Toribio Etxebarria.

ERAKUSKETA
19:00 Indalecio Ojanguren XXXVIII. Argazki Lehiaketako sariak banatzeko ekitaldia eta erakusketaren inaugurazioa. Portalea.

ANTZERKIA
19:00 "Gabriel Arestirekin", Kandido Urangak eta Inaxio Tolosak sortutako antzezlana. Liburutegien eguna ospatzeko. 5 euro. Portalea (areto nagusia).

ZAPATUA 25

IRTEERA
09:00 Itturria-goikoa baserrira irteera, Basagunea elkarteak antolatuta. Abiapuntua: Basa (Errebal Plazia).

NORDIC WALKING
09:30/11:30 Nordic Walking ikastaroa, Nuria Rodriguezen eskutik. Ipuruako merkatu plaza.

TOPAKETA
10:00 Altxa Burua I. Topaketa Orokorra. Francisco Villar adituaren hitzaldia. **11:00** Hezkuntzaren digitalizaziorako markoa. **11:30** Altxa Burua Antolaketa. **11:45** Atsedena. **12:00** Oinarrizko baliabideak. **12:15** Gizarteratze proposamenak. **12:30** Bakarrizketa. Sarrera librea. Hezkuntza Esparrua.

BISITA GIDATUA
11:00 eta 12:30 Eibar: bizikletaren arkitektura" bisita komentatua. Lehena gazteleraz, bigarrena euskaraz. Dohainik, baina aldez aurretik izena eman behar da. Hasiera: Errebal Plazia.

ZAPATUKO IPUINA
12:00 "Amonaren arima botila barruan" ipuin-kontakizuna, Maite Frankoren eskutik. Portalea.

ERAKUSKETA
11:00 Akuarela tailerra, Nono Garciaren eskutik. 18:30 Euskal Akuarelarien Elkartearen (AVA-EAE) nazioarteko akuarela erakusketa. Portalea.

MUSIKA
21:00 Judash taldearen kontzertua. Doan. Guridi taberna.

MUSIKA
Beleko Techno Gaua, Larre, Øier eta Houseonerekin. Doan. Beleko taberna.

DOMEKA 26

PINTURA LEHIAKETA
09:00/13:30 XLVIII. Aire Zabaleko Pintura Lehiaketa. 08:30/10:00 Izen-ematea eta materialaren zigilatzea, udaletxean. 13:30 Obrak jasotzea. 14:00 Sari-banaketa. Udaletxeko patioa.

ASTEKLIMA
09:30 Espezie exotiko inbaditzaileen (EEI) kontroljardunaldia. Abiapuntua: Urkora igotzeko aparkalekua (Ixua).

MUSIKA
12:30 Eibarko Musika Bandaren kontzertua. Doan. Coliseo antzokia.

ASTELEHENA 27

KANTU-SAIOA
19:00 "Euskal kanta tradizionalak" saio irekia. Arrate Kultur Elkartea.

MARTITZENA 28

ILLUNABARRIAN
18:30 "Plastiko magikoa" tailerra. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta. ...eta kitto!-ren egoitza (Urkizu, 11 solairuartea).

ENTSEGUA
18:30/19:30 Koralito abesbatza. Ipuruako Merkatu Plaza.

EGUAZTENA 29

PINTXO LEHIAKETA
Eibarko XXI. Pintxo Lehiaketa. Izena eman duten tabernetan.

MUSIKA
17:00 Nahaste Music Group, Untzaga gizarte zentroko taldearen emanaldia. San Andres nagusien egoitza.

BISITA GIDATUA
18:30 Euskal Akuarelarien Elkartearen (AVA-EAE) nazioarteko akuarelaerakusketara bisita, gazteleraz. Doan. Portalea (erakusketa aretoa).

EGUENA 30

HITZALDIA
10:00 "Eibarko historia partikular bat". Hizlaria: Pedro Alberdi Zinkunegi (Euskal Filologian lizentziatua eta idazlea). Euskaraz. Ikasten elkarteak antolatuta. Sarrera librea. Portalea.

PINTXO LEHIAKETA
Eibarko XXI. Pintxo Lehiaketa. Izena eman duten tabernetan.

ERAKUSKETAK

Urriaren 24tik azaroaren 16ra
Indalecio Ojanguren XXXVIII. Argazki Lehiaketako lanak.
Portalea.

Urriaren 25etik azaroaren 16ra
Euskal Akuarelarien Elkartearen (AVA-EAE) nazioarteko akuarela erakusketa.
Portalea.

ZINEA **COLISEO**

"Los domingos"
DRAMA

2025 / Euskal herria / 115'
Zuzendaria: Alauda Ruiz de Azúa
Aktoreak: Blanca Soroa, Patricia López Arnaiz, Miguel Garcés, Juan Minujín
Familia. Erlijioa. Nerabezaroa.

1 ARETOA
- **25ean : 17:00**
- **26an : 17:00**

ANTZOKIA
- **25ean : 19:45, 22:30**
- **26an : 20:00**
- **27an : 19:30**

"La sospecha de Sofía"
INTRIGA. THRILLER. DRAMA

2025 / Estatu Espainola / 100'
Zuzendaria: Imanol Uribe
Aktoreak: Álex González, Aura Garrido, Zoe Stein, Irina Bravo
Espioitza. Gerra Hotza.

1 ARETOA
- **25ean : 19:45, 22:30**
- **26an : 20:00**
- **27an : 19:30**

" La cena "
KOMEDIA. DRAMA

2025 / Estatu Espainola / 106'
Zuzendaria: Manuel Gómez Pereira
Aktoreak: Mario Casas, Alberto San Juan, Asier Etxeandia
Komedia beltza. Espainiako gerraostea. Historikoa.

2 ARETOA
- **25ean : 17:00, 19:45, 22:30**
- **26an : 17:00, 20:00**
- **27an : 19:30**



"Los tipos malos 2"
ANIMAZIOA. KOMEDIA

2025 / AEB / 103'
Zuzendaria: Pierre Perifel, JP Sans
Aktoreak: Sam Rockwell, Marc Maron, Craig Robinson, Anthony Ramos
Animaliak. Lapurretak.

ANTZOKIA
- **25ean : 17:00**
- **26an : 17:00**

Mª Angeles Arrieta Murgoitio

12. URTEURRENA
2013/10/25

"Hamaika urte badira ere gure aldetik joan zarela...
EZ DITUGU INOIZ AHAZTUKO
IZAN DITUZUN ILUSIOA ETA BIZIPOZA"

- Jose Miguel eta Jaione Gorospe, zure senarra eta zure alaba -

Urtzi Abantzabalegi Arantzabal

2. URTEURRENA
2023/10/23

"Zure gorputz haundixak tamaiñako bihotza gordetzen eban. Gurian betirako taupadaka dirau"

- MIRENEN KUADRILLA -

943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.

Zorionak, **OINATZ!** Domekan 13 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren, eta batez be Bernat, Lur eta Naiken partez.

Zorionak **DANEL!** Astelehenian, urrlak 27, 4 urte beteko dozuz, Segi hain alai. Patxo potolo bat famelixa guztiaren partez.

Zorionak, **PAULE**! Bihar, urriak 25, 3 urte betetzen dozuz eta! Besarkada eta musu lodi bat famelixa guztiaren partez.

Zorionak **DANONE**! Eskerrik asko gurekin, maite zaituztenekin jarraitzeagatik. Ez dugu nahikoa jaiotzearekin, berpizteko jaioak gara! Sara

Zorionak **ION**! Hamar patxo potolo danon partez!

Zorionak **LUANA Blanco de Castro**. Urriaren 27an 2 urte! Patxo handi bat famelixa eta, batez be, aitxitxa Manolo eta amama Mari Feliren partez.

Zorionak **IAN**! barixakuan 11 urte beteko dozuz eta! Urte askotan zurekin ikasten eta hazten jarraittuko dogulakuan, patxo potoloa famelixa guztiaren partez!

Zorionak **TELMO ETA MARINA!** Patxo potolo bat famelixaren eta batez be Lur, Ander eta Martinen partez. Maite zaittuztegu!

Zorionak **EDU** (urriak 16) eta **ITZÁ** (urriak 23). Ondo ondo ospatu zeuen urtebetetziak! Laztan haundi bana famelixa guztiaren partez.

Ignacio Zamacola Zubia

4. URTEURRENA
2021/10/23

"Gure bihotzetan beti maite izango zaitugu"

- ETXEKOAK -

Urtzi Abantzabalegi Arantzabal

2. URTEURRENA
2023/10/23

"Betirako gure bihotzetan"
MAITE ZAITUGU

- ETXEKOAK -



Iragarki laburrak

943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA
- 2.1. Salgai

3. LOKALAK
- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA
- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA
- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK
- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Donostia erdialdean bi logelako apartamentua negurako alokairuan. Altzariz jantzita. Rosa Mª. 653 733 457.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- 100-200 metro karratu inguruko lokala erosiko nuke. Salneurri merkekoa izatea beharrezkoa da. Karga-deskarga erreza, eguneko argia edo lokalizazioa baloratuko dira. 665732640. Aitor.

3.2. Errentan

- Taberna eskualdatzen da. Lokala alokagai, erosketarako aukerarekin. San Kristobalen. 943821329.
- Amañan guztiz hornitua dagoen ileapaindegia alokatzen da, solarium eta guzti. 61579 8724.
- Gazteentzako, merkataritzarako edota edozein erabilerarako lokala alokatzen da. Urkizu Pasealekua 11, behea. 660084356

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusien zaintzarako. Externa edo interna. Baita ospitaletan ere. 613287661.
- Emakumea eskaintzen da, orduka, nagusien zaintzarako. Soziosanitario ziurtagiria eta erreferentzia onekin. Garbiketa lanetarako ere prest. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edota ume zein nagusiak zaintzeko. 632768653.
- Gizonezkoa eskaintzen da zerbitzari lanetarako, garbiketak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. 632049330.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. 641149871.
- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak pasiatzeko. 617571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko, 09:30etik aurerra. Tel 602800266.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Asteburuetan, orduka, gauez... 631425686.

4.2. Langile bila

- Eibarko erdiguneko tabernan, mahaietan aritzeko zerbitzari bila gabiltza. 604203896-
- Eibarko erdigunean dagoen ileapaindegirako eskarmentudun estetizista behar da. Lan giro ona. 678674250.
- Elektrohigadurazko mekanizazio makinan lan egiteko langilea behar dugu. Gutxienez 3 urteko esperientziarekin. 661326127.
- Zerbitzaria behar da asteburuetarako Kultu tabernan. Euskaraz jakitea baloratuko da. 943208439. Aitor.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoko ikasleentzako euskara eta ingelesezko klaseak ematen ditut. Esperientziarekin. 629360924. Naiara.
- Gitarra, baxu elektrikoa eta ukelele klaseak. Armonia eta konposizioa. Musikene-ko irakasle tituluduna. basseak@yahoo.es 652217737.LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.4. Bestelakoak

- Bizikleta estatikoa erosiko nuke. 656732584.
- Pilates irakaslea eskaintzen da norberaren etxera joan eta klase pribatuak emateko. Gehienez bi ikasle klase bakoitzeko. Adin guztiak eta maila guztiak. 685724192.
- Bigarren eskuko bizikleta estatikoa erosiko nuke. 696395510.

GREMIOEN GIDA

ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com
trinmer
TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

ELEKTRIZITATEA

THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko urgentziak
610 532 922 www.thelecer.com

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia
J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriaacha.com
eta faxa: 943 203 903

AROTZAK

ulmar S.L.
aluminiozko eta PVC-ko
AROZTEGIA
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar
Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza
irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.
Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobeaz
goza dezazun
Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

PINTURAK

IÑAKI
pinturak eta lurrak
Tel. 647 902 208
Bidebarrieta, 21 - behea

PLAGEN AURKA

PLAGANATURA
PLAGEN AURKAKO ZERBITZUAK
www.plaganatura.com
948 098 760
ELAGOIBAR

FINANTZAKETAREKIN LAGUNDUKO DIZUGU

150 familia gertu duten okindegi baten bila dabiltza.

Errekatxu Berri da zure negozioaren giltza; zatoz.
Lokalak eta **garajeak** salgai, estreinatzeko prest.

Informa zaitez
loiola.com
900 102 220

Loiola
Espacios para vivir